BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

GORABIDE

ASOCIACIÓN VIZCAÍNA EN FAVOR DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL
ADIMEN EZINTASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO BIZKAIKO ELKARTEA

**PRENTSA OHARRA**

# Batzar Nagusiek eta Goirabidek hitzarmena egingo dabe Enkarterrietako Museoa adimen desgaitasuna dabenentzako kultur zentro inklusibo bihurtzeko

- **Enkarterrietako Museoak "Enkarterri, ehun urte Athleticekin" izeneko erakusketan hobekuntzak egin ditu kulturea pertsona guztientzako irisgarri izan daiten.**

*Abellanedan, 2013ko uztailaren 11n*

Abellanedako batzarretxea Bizkaiko Batzar Nagusiek eta Gorabidek (adimen ezintasuna daben pertsonen aldeko Bizkaiko Elkarteak) sinatu daben lankidetza hitzarmenaren lekuko izan da gaur goizean. Hitzarmen horren bitartez, erakunde biek konpromisoa hartzen dabe Enkarterrietako Museoak beste aurrera-pauso bat emon dagian inklusinoaren alde egindako ibilbidean. Hitzarmen horregaz, bada, burutu egiten da adimen desgaitasuna daben pertsonen beharrizanetara egokitutako kultur zentroa egitea lortzeko urte bitan gauzatu dan lankidetza proiektua. Orain astebete inauguratu zan "Enkarterri, ehun urte Athleticekin" izeneko erakusketea eredu bihurtu da adimenagaz loturiko oztopoak ezabatzeko.

Hitzarmena sinatutakoan, Gorabideren Sopuertako egoitzako erabiltzaileek aukerea izan dabe edukinak adimen desgaituentzako egokiturik dauen erakusketea gozatzeko, esate baterako "irakurketa errazeko" osagaien bitartez. Era berean, adimen ezintasuna daben pertsonen adierazpen artistikoari begira atondutako berariazko tailerrak egitea bideratzen dau hitzarmenak, baita espazio irisgarriagoak eta beharrizanei egokituagoak izatea be. Hitzarmenaren bitartez, kultur espazio inklusiboa sortzen da, non gizatalde guztiek parte hartu ahal izango daben, Enkarterriko kultureak Bizkaiko gizartean zabalkundea izan dagian.

Proiektuaren aurkezpenean, Ana Madariaga Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak azpimarratu egin dau "Hitzarmena aurrerantzean alkarregaz egingo dogun bide luzearen hasiera besterik ez dala, beti be desgaitasunen bat dabenengana hurbiltzeko borondatea gidari dogula". Enkarterrik Athleticegaz izan dauen lotureari buruz Enkarterrietako Museoan inauguratu barri dan erakusketea da lehenengoa "benetako" jarduera inklusiboa osorik gauzatzen dauena. "Hauxe dogu abiaburua aurrerantzean, arian-arian, desgaitasunik dabenengana hurbiltzen joateko", esan dau Ana Madariagak hitzarmena sinatzeko ekitaldian.

Pablo González Gorabideko kudeatzailearen aburuz, artea gizatalde horrengana hurbiltzeak eskutik dakar "gizarteratzean aurrerapausua emotea". Honen moduko ekimenek "argi erakusten dabe zelango aurrerapausua dan erkidegoaren baliabideak era guztietako pertsonentzat

egokitzeak baliabideok osoro aprobetxatzeko bidean”. ”Izan be, testu irakurterrazak adimen desgaitasunduentzat ez eze, irakurteko eragozpen iraunkorrak edo iragankorrak daukiezan pertsonentzat be baliagarriak dira”. Gonzalez jaunak ganeratu dau era horretako pertsonak biztanleriaren %30 inguru izan daitekezala.

Hitzarmenaren bitartez, Erakunde biek konpromisoa hartzen dabe, besteak beste, alkarri laguntza emoteko kultur ekintzak garatzeko eta Abellanedako Museoaren ekimenen zabalkundea egiteko bakotxari joakon arloan. Hitzarmenaren helburu dira be adimen desagaitasuna daben pertsonek museoak antolatutako erakusketa eta ekimenak hobeto ulertzeko gertatutako hobekuntzek merezi daben bultzadea emotea eta arlo horretan erreferente izatea.

Laburtzearren, hitzarmen honen bitartez burutu egiten da 2011. urtetik hona Gorabidek - Adimen ezintasuna daben pertsonen aldeko Bizkaiko Elkarteak eta Bizkaiko Batzar Nagusiena dan Enkarterrietako Museoko teknikariek alkarlanean adimen ezintasuna daben pertsonentzako beren beregiko konponbideak bilatzeko eskutik hartuta egindako bidea.

**NOTA DE PRENSA**

# Juntas Generales y Gorabide acuerdan convertir al Museo de Las Encartaciones en un referente cultural inclusivo para personas con discapacidad intelectual

- **El museo encartado estrena con su exposición temporal "Cien años de Las Encartaciones con el Athletic" mejoras para que la cultura sea accesible para todas las personas.**

Abellaneda, a 11 de julio de 2013.

La Casa de Juntas de Abellaneda ha sido escenario esta mañana de la firma del convenio de colaboración entre las Juntas Generales de Bizkaia y la asociación Gorabide (Asociación Vizcaína en favor de las personas con discapacidad intelectual) por el que ambas instituciones se comprometen a dar un paso más en el carácter inclusivo del Museo de Las Encartaciones. Este acuerdo culmina un proyecto de asesoramiento que ha durado dos años para la creación de un centro cultural adaptado a las necesidades de las personas con discapacidad intelectual. La exposición "Cien años de Las Encartaciones con el Athletic", inaugurada la semana pasada, se convierte en modelo para eliminar barreras intelectuales.

En la firma del convenio, usuarios de la residencia de Sopuerta de Gorabide han podido difrutar de una exposición en donde los contenidos se han adaptado a personas con discapacidad intelectual, incorporando, por ejemplo, elementos de "lectura fácil". Asimismo, el acuerdo facilita en el futuro la implantación de talleres específicos de expresión artística para este colectivo con importantes déficits de comprensión, además de la creación de espacios más accesibles y adaptados a sus distintas necesidades. El acuerdo permite crear un espacio inclusivo donde todos y cada uno de los colectivos sociales dependientes tengan cabida, con el objetivo de divulgar el conocimiento cultural de Enkarterri entre la sociedad vizcaína.

En la presentación del proyecto, la Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Madariaga, ha destacado que el museo encartado, de la mano de Gorabide, inicia un "largo camino de colaboración para acercar nuestro patrimonio cultural a las personas con discapacidad". La recién estrenada exposición temporal sobre la relación de Enkarterri con el Athletic, abre una práctica inclusiva "real" del museo ubicado en la Casa de Juntas de Abellaneda (Sopuerta). "Es el punto de partida que nos va a permitir acercarnos cada día más a las personas con discapacidades", ha pronosticado Madariaga tras la firma del convenio.

Para el gerente de Gorabide, Pablo González, acercar el arte a este colectivo supone "avanzar un paso más en su integración social". Iniciativas como esta "sirven de ejemplo del avance que

supone el aprovechamiento total de los servicios comunitarios mediante su adaptación a todo tipo de personas”. La disposición de las muestras expositivas con textos de lectura fácil “no sólo beneficia a las personas con discapacidad intelectual, también hace más sencilla la comprensión para personas con dificultades lectoras permanentes o transitorias”, ha dicho. Según González, estas personas pueden llegar a suponer aproximadamente el 30% de la población.

Entre otras cosas, las dos entidades se comprometen a prestarse ayuda mutua en el desarrollo de las iniciativas culturales y promover la difusión de las actividades del museo de Abellaneda entre sus grupos de interés más relevantes. Poner en valor estas mejoras para que personas con discapacidad intelectual comprendan mejor el contenido de las muestras y las actividades organizadas por el museo, y crear un referente cultural en esta materia, se incluyen también dentro de las intenciones del convenio.

En defnitiva, el acuerdo es el resultado de la búsqueda de soluciones específicas para el colectivo de personas con discapacidad intelectual que han desarrollado conjuntamente, desde el año 2011, Gorabide, la asociación vizcaína sin ánimo de lucro que trabaja en favor de estas personas, y los técnicos del Museo de Las Encartaciones, propiedad de las Juntas Generales de Bizkaia.